



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2016KO EKAINAREN 9AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesús Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Hanot Karrera Amondarain
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga
Juan Luis Cid Conde

BITARTEKO IDAZKARI:

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

*Ibarran, **bi mila eta hamaseiko ekainaren bederatzian** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ez-ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

2016/06/09



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 1.- Ibarra Udalean Udaltzaingo Gorputz berria sortzeko akordioa**
- 2.- 2016urterako Kultura arloko diru-laguntzak emateko datu bilketaren inguruko fitxategiaren aldaketa**
- 3.- 2016urterako Kirol arloko diru-laguntzak emateko datu bilketaren inguruko fitxategiaren eraketa**
- 4.- 2016urterako Gizarte Zerbitzu eta Zerbitzu arloko diru-laguntzak emateko datu bilketaren inguruko fitxategiaren eraketa**
- 5.- Galde-erreguak**

LEHENENGOA:

1.- IBARRAKO UDALEAN UDALTZAINGO GORPUTZ BERRIA SORTZEKO AKORDIOA

Mikel Agirrezabala Ezkurdiak Alkate jaunak honakoa adierazten du:

Ibarra Udalean egin diren azken azterketak: Agenda 21 eko ekintza plana (2014-2022), Mugikortasun plana (2009), Enea eta Ikertalde egindako Ibarra Iraunkortasun diagnostikoa (2014), Tolosako area funtzionala Lurralde Zatikako Planetik aztertuta (2013) eta Oria Ertzain-Etxearen arduradunaren txostena kontutan izanik beharrezkoa da Ibarra Udaltzaingo zerbitzu bat eratzea.

Udal Funtzionamendua eraginkorra izateko; legea betearazteko eskumenean dauden gabeziak ekiditeko; udal ordenantzen betearazte bermatzeko eta udal plantilan dagoen pertsonalak egun betetzen dituzten polizia lanak bideratzeko udaltzaingo zerbitzua beharrezkoa dela ikusi da.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailearen 17ko 4/1992 legeak haxe dio “de las Policías Locales” izenburuko V. tituluan 5.000 bizilagunetik beherako herriek bere polizia taldeak sortu ahal izango dituztela, salbuespeneko kasuetan, benetan behar edo komeni izanez gero. Kasu hauetan, Eusko Jaurlaritzaren alde aurretiko baimena beharko da. Edozein kasutan, udalkideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da herriko polizi gorputz bat sortzeko.

2016/06/09



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aurkezten den txostenean argi uzten da salbuespenezko kasu bat dela eta egun Ibarra Udalak beregain dituen eskumen batzu egikaritu gabe uzten dituela polizia gorputza eratu gabe daukalako; adibidez herri barruko trafiko eskumena.

Ibarra Udaltzakoak, 2016ko martxoaren 17an buruturiko ohiko bilkuran, Eusko Jaurlaritzari Ibarra gorputz poliziala eratzeko baimena eskatzea onartu zuen.

2016ko martxoaren 22an Ibarra Udalak polizia gorputza eratzeko eskaera eta txostena aurkezten du Segurtasun sailean.

2016ko apirilaren 7an Segurtasun Koordinazio Zuzendariak aldeko txostena igorri du.

2016ko apirilaren 11n Segurtasun Kontseilariordeak aldeko txostena igorri du.

2016ko maiatzaren 31an Ibarra Udalak, Jaurlaritzaren idazkaritzako eta Legebiltzarreko harremanetarako Zuzendariaren erabakia jasotzen du baimena emanaz Ibarra herrian Udaltzaingoa sortzeko (195007 irteera zenbakiarekin eta 1053 sarrera erregistroaren zenbakiarekin)

2016ko ekainaren 10an, Ibarra Udaleko pertsonal saila Arkauteko pertsonalarekin harremanetan dago Udaltzaingo gorputza eratzeko beharrezko diren izapideak egiteko. Egun, oraindik ez dugu erantzunik jaso nola bideratu daitekeen aguazil postutik Udaltzaingo postura aldatuta egin dadin.

Udaltzakoak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Ibarra Udalean Udaltzaingo Gorputz berri baten sorrera

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Herri Administrazio eta Justizia Saileko Erakunde Harremanetarako sailburuordeari.

PROGRAMA

Ibarra Udalak aurrikusi du honako postu hauek sortzea:

- Agente 1ena.....postu 1
- Agentek.....2 postu
- Alguazil postua Udaltzaingo postura aldatu

2016/06/09



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Prozesuaren zailtasuna ikusirik (gehienbat Alguazil postutik Udaltzain postura aldaketa egitea) Ibarra Udala, Aurkauteko pertsonalaren gomendioen zai dago prozesu guztia aurrera eramateko (4 plaza sortu edo 3 plaza sortu eta konbalidazioa egin edo barne promozioa egin edo beste aukera batzuk aztertu ... Arkauteko profesionalak esaten dutenera baldintzatua gelditzen baita). Guzti honegatik Ibarra Udalak ezin du programa zehatzik aurkeztu Udaltzaingo Gorputza eratzeko prozesu honetan.
- Aurkezten dugu Ibarra Udalak aurrez egin duen azterketa (4 udaltzaingoen orduen taula).
- Ibarra Udalak Arkautetik prozesua aurrera eramateko ildoak jakin bezain laster, jakinaraziko du Udaltzaingo gorputzaren eraketaren programa zehatza

2016	I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII	IX	X	XI	XII	Total	A favor	dias	Art. 60	Erabil.	vacaciones
UNO	133	147	140	147	154	154	77	91	147	126	147	133	1596	4	0,57	6	0	17
DOS	133	147	140	147	154	84	91	147	147	126	147	133	1596	4	0,57	6	0	17
TRES	133	147	140	147	154	154	140	126	77	98	147	133	1596	4	0,57	6	0	17
CUATRO	133	147	140	147	154	154	119	49	147	126	147	133	1596	4	0,57		0	17
	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	-1592	-199,00		0	
	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	-1592	-199,00		0	
	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	-1592	-227,43		0	

08/03/2016 0:00



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENGOA

2016URTERAKO KULTURA ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DATU BILKETAREN INGURUKO FITXATEGIAREN ALDAKETA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa arautzen duena) 20. artikulua eta Eusko Legebiltzarreko 2/2004 Legearen 18. artikulua aintzat hartuta: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan 2083150001 Erregistro zenbakia duen datu fitxategia, Kultura Kudeaketa izenduna, aldatu behar da Ibarako Udalak egun jarraitu behar dituen izapideetan eskatu behar dituen datuak kontutan izanik.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Datuak Babesteko Euskal Bulegoan 2083150001 Erregistro zenbakia duen Kultura Kudeaketa izendun datu fitxategia 1 eranskinean ezarritakoaren arabera.

BIGARRENGOA: Testu hau osoki Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15/1999 Lege Organikoaren 20. 1 Artikuluak agindu bezala.

HIRUGARRENGOA: Erabakiaren berri ematea Datuen Babeserako Euskal Agentziari, horrela agintzen baitu 2/2004 Euskal Legebiltzarreko Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2 art.ak. Ondoren, Datuen Babeserako Erregistroan izen emango zaio da eta Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Erregistroan sartuko da.

I ERANSKINA

ALDATU BEHARREKO FITXATEGIAK

Identifikazioa	KULTUR KUDEAKETA
Fitxategiaren helburua	Helburua: udalerrrian antolatzen diren Kultur jarduerak egitea eta kontrolatzea eta mota horretako jarduerak egiten dituzten elkarte nahiz norbanakoei emandako dirulaguntzen kudeaketa administratiboa.
Fitxategiaren arduraduna	Ibarako udala
Atala	Kultura eta gazteria
ARCO Eskubideak	Ibarako udala

2016/06/09



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Nori eragiten dien	Erakunde, norbanako eta elkarte.
Datuen jatorria	Interesduna edo legezko ordezkaria
Biltze prozedura	Inprimakia, korreo elektronikoa
Euskarria	Papera, informatikoa
Fitxategiaren egitura	Identifikazio datuak: Izen-abizenak, tel. NAN, helbidea, e-mail Ekonomiko finantzario eta aseguruak Banku datuak Bestelakoak (erakundeen legezko ordezkarien datuak)
Datuak lagatzea	Ez da aurreikusten.
Nazioarteko transferentziak	Ez da aurreikusten.
Segurtasun maila	OINARRIZKOA
kokapena	Udaletxeko informatika sistemak eta artxiboa.

HIRUGARRENGOA

2016URTERAKO KIROL ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DATU BILKETAREN INGURUKO FITXATEGIAREN ERAKETA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa arautzen duena) 20. artikulua eta Eusko Legebiltzarreko 2/2004 Legearen 18. artikulua aintzat hartuta: Datuak Babesteko Euskal Bulegoari datu fitxategia berria eratzeko eskaera egin behar da Ibarra Udalak egun jarraitu behar dituen izapideetan eskatu behar dituen datuak kontutan izanik.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: izaera pertsonaleko datuen fitxategia sortzea; II. eranskinean jasotzen da fitxategi hori.

BIGARRENGOA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea erabakia, 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 art.ak ezarritakoari jarraiki.

2016/06/09



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENGOA: Erabakiaren berri ematea Datuen Babeserako Euskal Agentziari, horrela agintzen baitu 2/2004 Euskal Legebiltzarreko Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2 art.ak. Ondoren, Datuen Babeserako Erregistroan izen emango zaio da eta Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Erregistroan sartuko da.

II ERANSKINA
FITXATEGI SORTU BERRIAK

Identifikazioa	KIROLA SUSTATU ETA KUDEATZEA
Fitxategiaren helburua	Helburua: Udalerrian kirola sustatzea eta kudeatzea eta mota horretako jarduerak egiten dituzten elkarte nahiz norbanakoei emandako dirulaguntzen kudeaketa administratiboa.
Fitxategiaren arduraduna	Ibarrako udala
Atala	Kirolak
ARCO Eskubideak	Ibarrako udala
Nori eragiten dien	Erakunde, norbanako eta elkarte.
Datuen jatorria:	Inprimakia, korreo elektronikoa
Fitxategiaren egitura	Identifikazio datuak: Izen-abizenak, tel. NAN, helbidea, e-mail Ekonomiko finantzario eta aseguruak Banku datuak Bestelakoak (erakundeen legezko ordezkarien datuak)
Datuak lagatzea	Ez da aurreikusten.
Nazioarteko transferentziak	Ez da aurreikusten.
Segurtasun maila:	OINARRIZKOA
Kokapena	Udaletxeko informatika sistemak eta artxiboa.

LAUGARRENGOA

2016 URTERAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DATU BILKETAREN INGURUKO FITXATEGIAREN ALDAKETA

GAZTEEN PARTAIDETZA SUSTATZEKO DATU FITXATEGIAREN ERAKETA

2016/06/09



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa arautzen duena) 20. artikulua eta Eusko Legebiltzarreko 2/2004 Legearen 18. artikulua aintzat hartuta: Datuak Babesteko Euskal Bulegoari datu fitxategia berria eratzeko eskaera egin behar da Ibarra Udala egun jarraitu behar dituen izapideetan eskatu behar dituen datuak kontutan izanik.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehena: Izaera pertsonaleko datuen fitxategia sortzea; 3 eranskinean jasotzen da fitxategi hori.

Bigarrena: "GAZTEEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA " izeneko fitxategia aldatzea , Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Erregistroan 2083150004 zk.duna, III eranskina.

Hirugarrena: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea erabakia, 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 art.ak ezarritakoari jarraiki

Laugarrena: Erabakiaren berri ematea Datuen Babeserako Euskal Agentziari, horrela agintzen baitu 2/2004 Euskal Legebiltzarreko Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2 art.ak. Ondoren, Datuen Babeserako Erregistroan izen emango zaio da eta Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Erregistroan sartuko da.

III ERANSKINA

FITXATEGI SORTU BERRIAK

Identifikazioa	Gazteen parte-hartzea sustatzea
Fitxategiaren helburua	Haur, ume eta gazteen parte-hartzea sustatzea
Fitxategiaren arduraduna	Ibarra Udala.
Atala	Euskara eta Hezkuntza
ARCO Eskubideak	Ibarra Udala.
Nori eragiten dien	Udalerriko haur, nerabe eta gazteak
- Datuen jatorria:	Interesduna, edo legezko ordezkaria
-Biltze prozedura:	Elkarriketa eta formularioak
Erabilitako euskarria	Papera
Fitxategiaren egitura	<ul style="list-style-type: none">• Nortasun agiriak<ul style="list-style-type: none">○ Izen-abizenak○ Telefonoak○ Helbide elektronikoa○ Helbidea○ Irudia

2016/06/09



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	<ul style="list-style-type: none">• Ezaugarri pertsonalak<ul style="list-style-type: none">○ Familia datuak (gurasoen , legezko tutoreen izen-abizenak, NAN, tel.)○ Jaiotze data○ Jaiotze lekua○ Adina○ Sexua○ Naziotasuna○ Ama hizkuntza• Inguruabar sozialak<ul style="list-style-type: none">• Bizitokiaren ezaugarriak• Zaletasun eta bizimodua• Klub edo elkarteetakoa den• Akademiko eta lanbidezkoak<ul style="list-style-type: none">○ Formakuntza, titulazioa○ Beste batzuk: ikastetxea• Bereziki babesturiko datuak<ul style="list-style-type: none">○ Erljio/sineste○ Osasuna○ Arraza○ Bizitza sexuala
Datuak lagatzea	Herri Administrazioa , ikastetxea, interesdun edo legezko ordezkariaren baimenarekin
Nazioarteko transferentziak	Ez da aurreikusten.
-Segurtasun maila:	Altua
Kokapena	Udaletxeko informatika sistemak eta artxiboa.

BOSGARRENA:
GALDE-ERREGUAK

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2016/06/09